

2. KONTZEJUEEN ESJUMENAK

“2017ko proposamenean kontzejuek gaurko eskumenei eusten diete”.

2017ko proposamena

Kontzejuek gaurko eskumenei eusten diete.

Baina nahi dena da kontzejuek segitu ahal izatea beren eskumenei buruzko erabakiak hartzen beharrezkoak ez diren kostuak sortu gabe.

Horretarako, lehenago ere aurreratu den bezala, udaletan edo/eta eskualdeetan dauden administrazio-egituren erabilpena baimenduko da, ukitutako toki entitateek hala erabakitzen dutenean, Kontzejuaren batzarrak (edo kontzeju irekiak) hartzen dituen erabakiak betearazteko.

Horrela, langileen, erregistro eta artxibo elektronikoen, aurrekontuen, kontuen eta abarren bikoizketa galaraziko da.

2012ko Foru Lege Proiektua

Proposatzen du kontzejuen eskumenak higarzea, praktikan Komunitate-jabeen mailan utziz, kontzeju-ondareen kudeatzaile hutsak, ordezkariarik edo funtzio garrantzikorik gabe.

Hauxe proposatzen zuen: Kontzejuen eskumenak zeharo murriztea, honako hauek kenduz:

- Plangintzaren araberako hirigintza-lizentziak ematea, udalaren alde aurretiko txosten aginduzko eta loteslea edukita.
- Bide eta kale garbiketa.
- Argiteria publikoa.

Udalak eskumenak kontzejuari delegatzeko aukera errotik desagerraraztea.